

**Erreferentzia kodea:** ES/NA/AACF/2/043

**Izenburua:** URBANIZAZIO GERENTZIA

**Datak:** 1960-1974

**Deskribapen maila:** Funtsa

**Bolumena eta euskarria:** 20 instalazio unitate

**Sortzailea:** URBANIZAZIO GERENTZIA

**Erakundearen historia:**

Urbanizazio Gerentzia uztailaren 30eko 43/1959 Legeak sortutako erakunde autonomoa da eta Etxebizitza Ministerioaren mendekoa da.

1956ko maiatzaren 12ko Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Araubideari buruzko Legean programatutako hirigintzako lana modu eraginkor eta arinean egiteko beharragatik sortu zen. Berezko nortasun juridikoa, administrazio eta ekonomia autonomia eta jarduteko gaitasun osoa zituen, eta honako eginkizun hauek:

- Estatuaren edo Gerentziaren beraren funtsen kontura egin beharreko hirigintza jarduketetarako inbertsio planak prestatzea eta garatzea.
  - Inbertsio planak garatzeko beharrezkoak ziren plan eta proiektu teknikoak prestatzea.
  - Lurzoru erreserbak eratzeko, orubeak prestatzeko edo hirigintza izaerako antzeko beste edozein helburutarako lursailak edozein tituluren bidez eskuratzea.
  - Urbanizazio planak eta proiektuak egikaritzea.
  - Bere jabetzako lurak besterentzea, trukatzea eta lagatzea, eta haien gaineko hipoteka eskubideak eratzeta.
  - Lur eta orubeen gaineko azalera eskubideak, zortasunak eta beste edozein eskubide erreal eratzeta, eskualdatzea, aldatzea eta azkentzea.
  - Lurak eta orubeak desjabetzea, bai eta haien gaineko gainerako eragiketa materialak edo juridikoak ere.
- Hauek izanzen ziren gerentziaren gobernu organoak: batetik, Administrazio Kontseilu bat, jarduteko, kudeatzeko eta ordezkatzeko ahalmen zabalekoa, eta, bestetik, gerentea.

Otsailaren 11ko 237/1960 Dekretuak Urbanizazio Gerentziaren funtzionamendua arautzeko behin-behineko Erregelamendua onartu eta honako zerbitzu hauek ezarri zituen:

- Idazkaritza Nagusia
- Kudeaketa Idazkaritza
- Zuzendaritza teknikoa
- Lurzoruaren Zerbitzua
- Aholkularitza Juridikoa
- Kontu-hartzailatza eta kontabilitatea

1960ko urriaren 25eko Aginduaren bidez, Urbanizazio Gerentziari eskualdatu zitzaizkion Etxebizitzaren Institutu Nazionalarekin hitzarmenak egiteko Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiari emandako baimenak, haiez baliatuz Estatuko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzoru urbanizatua prestatzeko.

Funts honetan, Landaben Poligonoko Hiri Antolamenduko Plan Partzialari dagokion dokumentazioa dago. Plan hori Etxebizitza Ministerioko Urbanizazio Gerentziak idatzi zuen eta Hirigintza Batzorde Nagusiak onartu, 1964an. Urbanizazio Gerentziak erosi zuen lursaila, desjabetze sistemaren bidez. Plana onartu eta urbanizazio proiektuak idatzi ondotik, poligono hori Foru Diputazioari laga zitzaion 1965ean emandako eskritura publikoaren bidez. Diputazioak Gerentziari lursailaren erosketaren zenbatekoa ordaindu zion, bai eta proiektuen ordainsarien, hirigintza tasen eta abarren gastu guztiak ere. Une horretatik aitzina, Gerentziaren betebeharrak subrogatu ziren, era horretan poligonoa osatzen duen lursailaren desjabetzea legitimatu zuen hirigintza helburua betetzeko.

1972an Urbanizazio Institutu Nazionala (INUR) izena hartu zuen 4/1972 Lege Dekretuaren bidez, eta, urte batzuk geroago, uztailaren 24ko 2425/1975 Dekretuaren bidez, berrantolatu egin zen. Erakunde hori 1980an iraungi zen IPPVan sartu zenean —12/1980 Errege Lege Dekretua, zeinaren arabera Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Institutuan sartu baitziren Etxebizitzaren eta Urbanizazioaren Institutu Nazionala eta Hiri Ondare Sozialaren Administrazioa, eta 1981eko abenduaren 31ko Agindua, zeinaren bidez Lurzoruaren Sustapen eta Ekipamenduko Estatuko Sozietateari (SEPES) atxikitzen baitzitzaizkion Urbanizazio Institutu Nazionala (INUR) izandakoaren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak—.

#### **Funtsaren antolamendua:**

##### **043.01 ZERBITZUAK**

043.01.01 Hirigintzako planak eta proiektuak

#### **Sarrera baldintzak:**

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.